

**Presioa, energia, potentzia
AZTERKETA**

Izena

Kurtsoa


1 Ondoko irudian 4 kg-ko gorputz bat daukagu eta "A" puntutik abiatzen da abiadura batekin, "C" punturaino iristeko (ez doa gorago). Kalkulatu:

- "A" puntuan behar duen abiadura (m/s-tan) [0,5 puntu]
- "B" puntuan izango duen energia zinetikoa [0,5 puntu]
- "B" puntuan izango duen energia potentziala [0,5 puntu]
- "B" puntuan izango duen abiadura [0,5 puntu]

Bidean ez dago marruskadura-indarra ezta kanpoko indarrik ere.

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 10 minutu




2 12 kg-ko gorputz batek 8 m/s-ko hasierako abiadura du eta horizontalki mugitzen da. Kalkulatu 120 m ibili ondoren izango duen abiadura, indar hauek agertzen badira bide horretan:

- 25 N-eko marruskadura-indarra bide osoan
- 70 N-eko laguntza-indarra (higiduraren noranzkoan) 60 m-tan

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 10 minutu



3 Pieza metaliko bat (40 L-ko bolumena duena eta 4500 kg/m^3 -ko dentsitatea) uretan sartzen da. Kalkulatu:

- Pieza horren pisua [0,5 puntu]
- Pieza horren gainean urak egingo duen bultzada-indarrareem balioa [0,5 puntu]
- Itxurazko pisua [0,5 puntu]
- Pieza hori flotatzeko gai den ala ez [0,5 puntu]

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 10 minutu



4 Garabi batek 500 kg-ko karga igotzen du lurretik 40 m-ko altuerara 25 segundotan. Kalkulatu

- Garabi horren potentzia watt-etan [1,5 puntu]
- Garabi horren potentzia ZP-tan [0,5 puntu]

1 ZP = 736 W

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 10 minutu



© www.interempresas.net